

“EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO 2014-2020 EGF PROGRAMA ERAGILEAREN 2019KO URTEKO TXOSTENAREN HERRITARRENTZAKO LABURPENA”

Europako Batzordearen 2015eko abuztuaren 27ko Erabakiaren bidez onartu zen Euskal Autonomia Erkidegoko 2014-2020 EGF Programa Eragilea. Bada, Euskal Autonomia Erkidegoak arlo sozioekonomikoan eta lanekoan dituen premiak konpontzeari zuzendutako jarduerak jasotzen ditu Programak Eragile horrek. Guztira, 107,65 milioi euroko aurrekontua dauka eskura. Horien erdia (54,12 milioi euro) EBk emango du, eta EAEko erakundeek emango dute beste erdia. Euskal gizartean eragin handiagoa sor eta balio erantsia gaineratu dezaketen jardueretan kontzentratu da eskura zegoen finantzazioa.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak parte hartzen du Euskal Autonomia Erkidegoko EGF Programa Eragilean, eta **hainbat lurralde-eremutako beste eragile** ekonomiko eta sozial batzuek edota gizarte-sektoreak parte hartzea sustatzeko asmoz diseinatu da. Programa eragilearen erakunde onuradunak hautatzeko lehiaketa-prozedura baten bidez eratu zen parte-hartze hori. Jarraian dagoen taulan ageri da erakunde horien eta garatzen ari diren proiektuen zerrenda.

Ardatza	Gaia	Erakunde onuradunak eta proiektua
1	Enpleguaren iraunkortasuna eta kalitatea sustatzea, eta lan-mugikortasuna erraztea.	Donostiako Sustapena (“ Donostia GazteEkin ” programa) Garapen (Hazilan proiektua) ASLE (Euskadiko Lan Sozietateen Elkarte) (Lanzituz-Lan Sozietateak Sortuz) Vitoria-Gasteizko Udala (Emprende Local 20) Bilbao Ekintza (Bilbao Sortzen) Gipuzkoako Foru Aldundia (Autoenplegua Sustatzen)
2	Gizarte-inklusioa sustatzea, eta pobrezari nahiz edozein diskriminazio-motari aurre egitea.	Arabako Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea (OINEZ) EHLABE (Auker Ability) EMAÚS Bilbao SCIS (Gizarteratzea i3) Gizarteratzeari begirako Sendotu Aldi Berean Elkarte (Peñascal, Agiantza, Cáritas, Erroak, Zabaltzen, Gaztaroa eta Araba) (Sendotu Aldiberean) Suspergintza Elkarte (Emak-Tiva)

6	Gizarte-berrikuntza	<p>Lea Artibai Lanbide Heziketako Eskualdeko Eskolako Kooperatiba Elkarte (TEP proiektua, Technology Entrepreneurship Program).</p> <p>Bizkaiko Foru Aldundia (Bizkaian Gizarte Berrikuntza Sustatzeko programa)</p>
---	---------------------	---

Erakunde onuradunen jarduketek enpleguaren jasagarritasuna eta kalitatea, gizarte-inklusioa eta -berrikuntza sustatzea eta pobrezia aurre egitea dute helburu. Halaber, zeharka zaindu da emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioa, aukera-berdintasunaren printzipioa eta diskriminaziorik ezeko printzipioa errespetatzen eta sustatzen direla.

Erakunde horiek 2019an egindako jarduketak eta lortutako emaitzak urteko exekuzio-txostenean jaso dira.

2019ko 47 operazio hautatu dira, eta 20.552.000 euro da horiei dagokien zenbatekoa.

1. ardatzaren barruan, langabeen edo azpienplegu-egoeran daudenen lanerako sarbidea hobetzeko lan egin da hainbat ikuspegitik, dela parte-hartzaileen enplegarritasuna hobetzeko prestakuntza-ekintzak bultzatuz —funtsean, profesionaltasun-ziurtagiriak lortuz—, dela kontratatze laguntza-programen edo mugikortasun-beken bitartez. Horrez gain, laguntzeko, gaitasunak sortzeko eta lan-erperientzia bati ekiteko jarduketa integralak egin dira.

Jarduketa horietan 3.727 pertsonak parte hartu dute, 1.932 emakumek eta 1.795 gizonek. Haietako 3.476, 1.765 emakume (% 50,78) eta 1.711 gizon (% 49,22), langabeak ziren. 2019ko laneratze-indizea % 46,22koa izan da gizonen artean (403) eta % 53,78koa emakumeen artean (469), eta 2.590 gizonek (% 48,23k) eta 2.780 emakumek (% 51,77k) kualifikazioa lortu dute. Datu onak dira genero-ikuspegitik, termino erlatibotan emakume gehiagok eskuratzen dutelako enplegu edo kualifikazio bat programan parte hartzearen ondorioz.

Ekintzailetzaren arloan, aholkularitza eta prestakuntza eskaini zaie hainbat ekintzaileri, eta enpresak sortzeko edo haiek finkatzeko proiektuak babestu dira. 2019an, 265 lagunek atera dute onura mota horretako jarduketetatik. Orobat, nabarmentzekoa da gizon baino emakume (% 61,13) gehiagok parte hartu dutela, 162 emakumek eta 103 gizonek hain zuzen ere. Sortutako enpresetan ere islatzen da emakumeen parte-hartze handiagoa; 2019an sortutako 189 enpresetatik, 106k (% 56k) emakumeak dituzte enpresaburu.

2. ardatzeko jarduketetan sartzen dira gizarte-bazterketan edo egoteko arriskuan dauden pertsonen zuzendutako prestakuntza-jarduerak eta laneratze-ibilbideak. Horrez gain, desgaitasuna duten pertsonak lan-merkatu arruntean sartzea erraztu da, eta gaitasun gutxiago dituzten edo narriadura ebolutiboa zein zahartze goiztiarra duten pertsonen lanpostuen moldakortasunaren eta egokigarritasunaren alde egin da. Halaber, laneratzeko enpresak nahiz ekonomia sozialekoak sortzeko eta mantentzeko lan egin da.

Gizarte-inklusioa, aukera-berdintasuna, parte-hartze aktiboa eta enplegarritasunaren hobekuntza sustatzera bideratutako inbertsio-lehentasunari dagokionez, bazterketan dauden edo egoteko arriskuan dauden 1.995 lagunekin (982 emakumerekin eta 1.013 gizonekin) lan egin da, eta mota horretako ekintzetan parte hartu duten langabeen % 23,80k (% 12,93 emakumeak dira eta % 10,87 gizonak) enplegua eskuratu dute parte-hartzearen ondorioz.

Ekintzailtza soziala sustatzea eta enplegua eskuratzea errazte aldera ekonomia sozialeko enpresetan edo enpresa solidarioetan integratzea helburu duen inbertsio-lehentasuneko jarduketetan, 469 pertsonak parte hartu dute. Gizonak gehiago izan dira (% 63,75), 299 zehazki; emakumeak, berriz, 170. Horrez gain, landunak dira nagusi lehentasun honetan: % 78,46 dira (232 gizon eta 136 emakume). Hori dela eta, ekonomia sozialeko enpresetako enpleguari eusten dioten pertsonen kopurua da erreferentziazko adierazlea, eta helburu hori bete egin da kasuen % 97an.

Azkenik, 6. ardatzari dagokionez, jarraitu egin da landa-eremuetako talentuari euste edo hura erakartze aldera langabe gazteen enplegarritasuna hobetzea helburu duen prestakuntza dualeko TEP programarekin, bai eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Berrikuntza Sustatzeko programarekin ere. Jarduketa horiei esker, 36 pertsona (10 emakume eta 26 gizon) eta 45 pertsona (29 emakume eta 16 gizon) artatu ahal izan dira, hurrenez hurren, programazio-aldi osoan zehar.

Laburbilduz, 2019an egindako jarduketek aukera eman dute 6.459 lagunekin (3.249 emakumerekin eta 3.210 gizonekin) lan egiteko; horietako 4.844 (2.651 emakume eta 2.193 gizon) langabeak ziren. Horrez gain, jo behar da hasieran langabezian zeuden pertsonen % 30,55 (emakumeen % 29,99 eta gizonen % 31,24) laneratzea lortu dela.